

2013ko irailaren 26an, Sopuertako Udaltzako (5/13 zenbakiko ohiko osoko bilkuran eratu zen), legeak xedatzen duen eratzeko eta bozkatzeko quoruma izanik, honako erabaki hauek hartu zituen:

1.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, UZTAILAREN 22ko 4/2013 ZENBAKIKO OHIKO BILKURAREN AKTA.

EBAZPEN ALDEA.

2.- UDAL ARKITEKTOAK UDALETXEAREN BARRUALDEA ERABERRITZEKO OBRAK DIRELA ETA, EGINIKO 27, 28 ETA 30/13 TXOSTENEN BERRI EMATEA.

3.- HASIERAN ONESTEA, BIDEZKOA BADA, ZERGAK ARAUTZEN DITUZTEN UDAL ORDENANTZA HAUEK ALDATZEA:

1 ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALA: JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEN ZERGA ARAUTZEN DUENA

2 ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALA: ONDASUN HIGIEZINEN GAINEN ZERGA ARAUTZEN DUENA.

3 ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALA: TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEN ZERGA ARAUTZEN DUENA.

4 ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALA: HIRI LURREN BALIO GEHITZEAREN GAINEN ZERGA ARAUTZEN DUENA.

4.- HASIERAN ONESTEA, BIDEZKOA BADA, TASAK ARAUTZEN DITUZTEN UDAL ORDENANTZA HAUEK ALDATZEA:

6 ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALA: UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO APROBETXAMENDU BEREZIAGATIK EZARRITAKO TASAK ARAUTZEN DITUENA. ERANSKINA. 1. EPIGRAFEA.

7 ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALA: ZERBITZU PUBLIKOAK EMATEAGATIK EDO ADMINISTRAZIO IZAERAKO UDAL JARDUERAK EGITEAGATIK EZARRITAKO TASAK ARAUTZEN DITUENA. 5. EPIGRAFEA.

8 ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALA: KONTROLIK GABEKO ABEREA BILTZEKO HERRI ZERBITZUA EMATEAGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUENA. ERANSKINA.

5.- 2013ko 2. HIRUHILEKOKO AURREKONTU EGONKORTASUNAREN EMAITZA-EBALUAZIOARI BURUZKO TXOSTEN EGUNERATUAREN ETA GASTUAREN ARAUA 2013ko EKAINAREN 30ean BETETZEN ZELA DIOEN TXOSTEN EGUNERATUAREN BERRI EMATEA.

6.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, FORU ALDUNDIAK SOPUERTAKO UDALARI HONAKO OBRA HAUEK LAGATZEA: “JARRALTAKO URTEGIA HANDITZEA ETA BARRIETASKO UR-ITURBURUAREN SAREA BERRITZEA: SOPUERTA UDALERRIKO BARRIETASKO ITURBURUEN I. FASEA”.

7.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, 20080380 ESPEDIENTEAREN INGURUKO EBAZPEN PROPOSAMENA, CELESTINO MONTERO QUIJANO JAUNAK EGINIKOA ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA PUNTUALA ABIARAZTEA ESKATZEKO.

8.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, REZIKLETA ENPRESARI KONTRATURIK GABE HIRU PAPER EDUKIONTZI EROSTEAREN ONDORIOZ SORTUTAKO 4.900,50 €-ko ZORRA AITORTZEA.

9.- HERRI LANAK ETA GARRAIOAK FORU DIPUTATUAREN 3772/13 FORU AGINDUAREN BERRI EMATEA. HORREN BIDEZ ONETSI EGIN DA GARRAIO PUBLIKOKO ZERBITZUA EZARTZEKO PROIEKTUA.

10.- BERRESTEA, BIDEZKOA BADA, 561/13 ZENBAKIKO ALKATETZA DEKRETUA, 2014ko TOKIKO JAIEGUNA ONESTEARI BURUZKOA.

11.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, ADMINISTRAZIO BALDINTZA BEREZIEN PLEGUA ETA KONTRATAZIO ESPEDIENTEA, UDALARENAK DIREN ZEIN BIZILAGUNEKIN PARTZUERGOAN DAUDEN 65 BASO LOTEEN APROBETXAMENDUA BESTERENTZEKO, DEITUTAKO ENKANTEAN EMAN GABE GERATU BAITIRA.

12.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, UDALEKO HIGIEZINEN INBENTARIOAN ALTA EMATEA SAN ANTONIO URBANIZAZIOKO KONPENTSAZIO PROIEKTUAN SARTUTA DAUDEN ERABILERA PUBLIKOKO LURSAILAK.

13.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, TOMÁS MARCELINO PERNIA JAUNARENA DEN ETA COTARROS 5 HELBIDEAN DAGOEN GARAI BATEKO “CASA PAJERA” IZENEKO HIGIEZINA ETXEBIZITZA GISA AITORTZEA.

KONTROL ALDEA.

14.- UDALBATZAREN AZKEN OHIKO BILKURATIK HONA EMANDAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA LABUR-ZEHATZ.

15.- EGUNEKO AZTERGAIEN ZERRENDATIK KANPO: MOZIOAK.

15.1.- KARRANTZARI ZORIONAK EMATEA REPSOL GIDAK 2013ko TXOKORIK ONENA AUKERATU IZANAGATIK.

15.2.- TAILA ESKOLARI ESKER ONA EMATEA.

16.- GALDE-ESKEAK.